

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Sopelako Udala****Hiri lurren balioaren gehikuntzaren gaineko Zerga araupetu duen Zerga Ordenantza Fiskala aldaketaren behin-betiko onarpena.**

Sopelako Udalbatzarrak, 2022ko otsailaren 24ean egindako ohiko bileran, indarrean egongo den Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zerga Araupetu duen Zerga Ordenantza Fiskalaren aldaketaren onarpena behin behineko erabaki zuen.

Ez da ezelako erreklamaziorik aurkeztu Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zerga Araupetu duen Zerga Ordenantza Fiskalaren aldaketa onartzeari dagokion behin-behineko erabakia jendaurrean jarri den epealdian, beraz, erabaki hau behin betikotzat jotzen da Udal Ogasunen 9/05 Foru Arauaren 16.3 atalean erabakitakoarekin bat, Ordenantzaren aipatutako Onarpena eta Ezarketa eta Antolamenduen behin betiko testu osoa argitaratuz, argitaratzen denean indarrean egongo delarik, eta horren aurka interesdunek errekurtsua tartekatu ahal izango dute Administrazioarekiko Auzi-bidean azaroaren 20ko 8/1990 Foru Arauaren 3 atalaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eskumen hori araupetzen duten Arauek erabakitzen duten eran eta epean.

Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zerga Araupetu duen Zerga Ordenantza Fiskalaren behin betiko testua, horrela geratzen da idatzita.

Sopelan, 2022ko apirilaren 25ean.—Alkatea

**HIRI LURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUPETU
DUEN ZERGA ORDENANTZA FISKALA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen Foru Arauan eta zerga horri buruzko Foru Arauan ezarri denarekin bat, honako ordenantza honekin, hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko Zerga ezarri eta eskatu du; Ordenantza honen zati bat Eranskina da eta bertan ehunekoen koadroa jasotzen da.

2. artikulua

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA**3. artikulua**

1. Zergaren zerga egitatea edozein tituluagatik eskualdatzen diren hiri lurren edo jabaria mugatzen duen gozamen-eskubidea eratzen edo eskualdatzen den hiri lurren balioaren gehikuntza da.

2. Xede horietarako, ondoko hauek izango dira hiri-lurrak:

Hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria, antolamenduan horrela adierazita eta sektoretan sartuta dagoena, eta, orobat, antolamendua garatzen duten hirigintzako tresnek urbanizagarri gisa sailkatzen dutena.

Halaber, bide zoladuradunak edo espaloi zintarridunak dituzten lurrak hiri-lurreko ondasun higiezinak joko dira, baldin eta, horiez gainera, estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta herriko argiak badituzte; orobat, hiri-eraikuntzak dauden lurrak joko dira holakotzat.

Nekazaritzari buruzko Legerian ezarri denaren aurka zatikatzen diren lurrak ere honetakotzat hartuko dira, beti ere zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen duenean, horregatik lur horien landa izaeraren aldakuntzarik jaso gabe, honako zerga honetarako ez bada.

III. ZERGAPEAN EZ DAUDENAK**4. artikulua**

1. Ez dago zerga honen menpean Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako landakotzat hartutako lurren balioaren gehikuntza. Aldiz, Zergapean da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondoreetarako hirikotzat hartu behar diren lurren balioaren gehikuntza, katastroan edo erroldan hala ageri zein ez. Zerga honen ondorioetarako, ezaugarri bereziko higiezin gisa sailkatutako lurzoruek duten balio-gehikuntza zerga honen mende egongo da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako.

2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkionenean ez dago Zerga ordaindu beharrik, ez eta hark ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituenenean eta ezkontideek ondasun komunak ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkionenean ere.

Halaber, ezkontza deuseztatu edo senar-emazteak banandu edo dibortziatuz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago Zergaren kargapean, dena delakoa ezkontzaren araubide ekonomikoa.

3. Izatezko bikoteak araupetzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoarekin bat etorritako izatezko bikotearen kideek, aurreko bi atalek aipatzen duten kasuetan, egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdatzei ere tratamendu berbera aplikatuko zaie.



4. Ez dira zergapean egongo eskualdatze- eta eskuratze-datetan lursail horien balioen arteko aldeetatik balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzen den lursailen eskualdatzeak.

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko interesa duen pertsonak edo entitateak eskualdatzea deklaratu beharko du, bai eta eskualdatzea eta eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu ere. Ondorio horietarako, pertsona edo entitate interesdunak dira ordenantza honen 6. artikuluan zehazten direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoel egiaztatzeko, lursailaren eskualdatze- edo eskuraketa-balioztat hartuko da, kasu bakoitzean, balio hauetatik handiena. Ondorio horietarako, ezin dira eragiketa horiek kargatzen dituzten gastu edo tributuak zenbatu, eta denbora igarotzeagatik ezin da eguneratzerik egin.

- a) Eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasota dagoena.
- b) Hala dagokionean, zerga-administrazioak egiaztatu duena.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin baten eskualdatzea denean, lurzoruaren balioztat hartuko da, ondorio horietarako, zergaren sortzapen-datan lursailaren katastro-balioak duen proportzioa katastro-balio osoarekiko aplikatuta ateratzen dena. Eta, lurzoruaren katastro-balioa eta eraikuntza banakatu gabe badaude, lurzoruaren balioztat hartu ahal izango da katastro-balioaren gaineko % 40, eta proportzio hori eskualdatze-balioari (eta, hala badagokio, eskuratze-balioari) aplikatuko zaio. Paragrafo honetan ezarritakoa gorabehera, aurreikusitakoaz bestelako proportzio bat aplikatu ahal izango da, pertsona edo entitate interesdunak hala egiaztatzen duenean.

Eskuratzea edo eskualdatzea kostu gabekoa denean, aurreko paragrafoetako arauak aplikatuko dira, eta, hala badagokio, lehen aipatu diren alderatu beharreko bi baloreetatik lehenengotzat hartuko da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

5. artikulua

1. Balio-gehikuntzak zerga honetatik aske daude zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsona edo erakundeak direnean:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako toki-erakundeak eta beraien organismo autonomoak, eta Autonomia Erkidegoko eta toki-erakunde horietako organismo autonomo administratiboak eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.
- b) Zerga ezartzen duen udala eta berorretan integraturiko edo bera partaide duten gainerako toki erakundeak, eta beraren administrazio-erakunde autonomiadunak.
- c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.
- d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.
- e) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena aintzat hartu dien pertsona edo erakundeak.
- f) Administrazioaren emakida lehengoragarrien titularrak, haiei loturiko lurrei dago-kienez.
- g) Gurutze Gorria eta antzeko beste erakundeek, beti ere zeintzuk diren Lurralde Historikoak xedatuta.
- h) Irabazizko asmorik gabeko erakundeak. Lurren eskualdatzeen edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamenetzko eskubide errealeen eraketa edo eskualdatzeen kasuan, horiek irabazizko asmorik gabeko erakunde batek kostu bidezko tituluak eginda daudelarik, salbuespena emateko baldintzat hartu aipatu-tako lur horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan salbuespen edo exentzioa aplikatzeko ezarritako eskakizunak betetzea izango dute.

2. Halaber, zerga honetatik aske daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-gehikuntzak:



- a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera, zerga honetatik aske daude multzo historiko-artistikotzat jotako eremu baten barruan dauden ondasunen edo kultur intereseko adierazitako ondasunen eskualdaketa, baldin eta jabeek edo eskubide errealeen titularrek frogatzen badute higiezinak artatzeko, hobetzeko edo zaharberritzeko obrak egin dituztela euren kargura.

Xede horretarako, kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratutako Eraikuntzen eta Obren gaineko Zergaren ondorioetarako, higiezinaren katastro-balioa egindako obren balioa baino txikiagoa bada, jabeek frogatu behar dute higiezinak artatzeko, hobetzeko edo zaharberritzeko obrak egin dituztela euren kargura.

Idatz-zati honetan ezarritako ondorioetarako, salbuesteko eskabidearekin batera, honako agiri hauek hartu behar dira aintzat:

- 1) Zergaren xede diren ondasun eskualdatuak multzo historiko-artistikoaren barruan daudela edo kultura-intereseko ondasuntzat hartu direla ziurtatzen duten agiriak.
 - 2) Obren hirigintza-baimena edo obrak betearazteko agindua.
 - 3) Tramitatutako obra-lizentziagatik ordaindu den tasaren ordainketa-gutuna.
 - 4) Obra-bukaerako ziurtagiria.
- b) Edozein zortasun eskubide eratzea eta eskualdatzea.

3. Lursailen eskualdatzeetan eta jabariaren gozamina mugatuaren eskubide errealeen eskualdatzean edo osatzean zergaren erabateko kuotan ehuneko hoberia edukiko dute, ohiko etxebizitzari dagokionez, heriotza dela eta dohaineko titulutzat egindakoak ondorengoan eta hartutakoan alde, senar emazte edo egite bikoteen alde, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren araberrako egite bikoteak direnean, eta aurrekoen eta hartzaileen alde.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

1. Ondokoak dira zerga honen subjektu pasiboak:
 - a) Irabazteko xedeekin lurrak eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, pertsona fisikoari edo juridikoari lurrak eskuratzen dizkiona edo Zergei buruzko Arau Orokorreko 34.3. artikuluan aipatutako erakundea, edota eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.
 - b) Kostu bidez lurrak eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurren eskualdatzailea edo pertsona fisikoa edo juridikoa, edota Zergei buruzko Arau Orokorreko 34.3 artikuluan aipatutako erakundea, edo eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.
2. Aurreko idatz-zatiko b) letrak aipatzen dituen balizkoetan, zergadunaren ordeko subjektu pasibotzat joko da lurrak eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Arau Orokorrak 34.3. artikuluan aipatzen duen erakundea, eta, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisiko bat bada, eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

VI. ZERGA OINARRIA

7. artikulua

1. Zerga honen oinarria lursailen balioaren gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez ere hogeitun urtean metatutakoa. Zerga-oinarria honela zehaztuko da, artikulua honen 4. idatz-zatian ezarritakoa gorabehera: lursailak sortzapen-unean duen balioa —artikulu honetako 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu—, bider sortzapen-aldiari dagokion koefizientea —3. idatz-zatian ezarritakoarekin bat—.



2. Lurrek sortzapen-unean izan duten balioa erregela hauen bitartez kalkulatu da:
 - a) Lur-eskualdaketetan, lurren balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondo-reetarako finkatutakoa izango da. Erabileraren batean lurraren eta eraikuntzaren katastro-balioa ez badago banakatuta, balio horren %60 aplikatu ahal izango da.
 - b) Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko eduki-eskubideak eratzten eta eskualdatzen direnean, urteko portzentajeak, artikuluko honetako 3. artikuluan adierazi direnak, aurreko letran definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketetan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoreetarako finkatuta dauden arauak ezarriz, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.
 - c) Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitzearen eskubidea eratzten edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitzearen eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, artikuluko honetako 3. idatz-zatian aipatutako urteko portzentajeak a) letran finkaturiko balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, eta balioari eskualdaketa-ekrituran finkaturiko proportzotasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduan edo zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.
 - d) Derrigorrezko desjabetzapenak daudenean, artikuluko honetako 3. idatz-zatian bildutako urteko portzentajeak lurraren balioari dagokion balioespenaren zatiari aplikatuko zaizkio, lur horren katastro-balioa txikiagoa denean izan ezik, horrela-koetan azken balio honek lehentasuna izango baitu balioespenaren gainetik.
3. Gehikuntza hori agerian jarri den urte kopurua izango da balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia.

Zergaren kargapean ez dauden kasuetan, salbu eta foru-agindu bidez besterik ezarzen ez bada, lursailaren geroko eskualdatze batean agerian jarritako balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia kalkulatzeko eskuratzeko datatzat hartuko da zergaren aurreko sortzape- gertatu zen data, aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, foru-arau honen 1. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezinaren geroko eskualdatzean, lursailen balio-gehikuntza agerian jarri den urte kopurua kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko lursailak eskuratu aurreko aldia, kasu hauetan izan ezik: zergapean ez dauden ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdatzeetan, kontuan harturik zer ezarrita dagoen foru-arau honen 4. artikuluko 3. idatz-zatian, kasu horretan, aurreko paragrafoan xedatu dena aplikatuko da.

Igaro den urte kopurua kalkulatzeko urte osoak soilik zenbatuko dira; ez dira kontuan izango urte-zatikiak. Baldin eta sortzapen-aldia urtebete baino gutxiago bada, urteko-koefizientea hainbanatuko da, hilabete osoak zenbatuta; hau da, ez dira kontuan izango hilabete-zatikiak.

Sortzapenaren unean lursailaren balioari aplikatu behar zaion koefizientea —aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera kalkulatu— udalak onartu dituenekin bat datorrena izango da, balio-gehikuntzaren sortzapen-aldia zein den kontuan hartuta, betiere muga hauek gainditu gabe:

Sortzapen-aldia	Koefizientea
Urte 1etik beherakoa	0,14
1 año	0,13
2 años	0,15
3 años	0,16
4 años	0,17
5 años	0,17
6 años	0,16



Sortzapen-aldia	Koefizientea
7 años	0,12
8 años	0,10
9 años	0,09
10 años	0,08
11 años	0,08
12 años	0,08
13 años	0,08
14 años	0,10
15 años	0,12
16 años	0,16
17 años	0,20
18 años	0,26
19 años	0,36
20 urte edo gehiago	0,45

Gehieneko koefiziente horiek foru-agindu bidez eguneratuko dira urtero, eta eguneratze hori Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren bidez egin daiteke.

Baldin eta, aurreko paragrafoan aipatzen den eguneratzearen ondorioz, indarrean da goen ordenantza fiskala dela bide onartutako koefizienteren bat handiagoa bada legez ezarritako gehieneko koefizientea baino, zuzenean aplikatuko da handiagoa den koefiziente hori, gaindikin hori zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

4. Subjektu pasiboak eskatuta eta 4. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako prozedurarekin bat, egiaztatzen denean balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluhonen aurreko idatz-zatietan jasotakoarekin bat zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

VII. ZERGA KUOTA

8. artikulua

8.1. Zerga honen kuota zerga oinarriari eranskinean adierazitako karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

8.2. Zergaren kuota likidoa kalkulatzeko, kuota osoari hurrengo idatz-zatiko hobaria aplikatuko zaio, egonez gero.

VIII. ZERGAREN SORTZAPENA

9. artikulua

1. Zerga kasu hauetan sortzen da:

- Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostu bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz. Sortzapena eskualdaketa-egunean gertatuko da.
- Jabaria mugatzen duen eduki-eskubide errealean bat eratzten edo eskualdatzen denean. Sortzapena eraketa- edo eskualdaketa-egunean gertatuko da.

Arestian adierazi denaren ondoretarako, hauxe hartuko da eskualdaketa-eguntzat:

- Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen denekoa, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo, lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.
- Heriotza-ziozko eskualdaketatik, sortzailearen heriotza-data.

2. Baldin eta, epai edo administrazio ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurrak edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deu-



seztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zergaren itzulketarako eskubidea izango du, baldin eta egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketak ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatzen bada. Interesatuak elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela legeztatu ezean, irabazteko ondoreak daudela ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak betebeharrak ez betetzearen ondorioz adierazten bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

3. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua ondorerik gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea, eta egintza zergapeko egintza berriztat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetzeko ekitaldiko abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4. Egintza edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, Zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, Zerga erreserba gisa eskatuko da baldintza betetzen denean, behar den itzulketak aurreko idatz-zatiko arauari jarraituz eginez gero.

5. Alkar-poderoso edo testamentua egiteko ahalaren bidezko jaraunspenetan, Zergaren sortzapena ahala modu ezeztazinean erabiltzen denean edo hura iraungitzeko karietariko bat gertatzen denean gertatuko da.

Alkar-poderosoan edo testamentu egiteko ahalean norbaiti zerga honen pean dauden jaraunspeneko ondasunen gozamenaren edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, bihurtzeko gozamenari buruzko arauen pean, eta bestea behin-betikoa, alkar-poderosoa edo testamentu egiteko ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, eragilearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Gozamenaren ordaindutakoa konturako sarreratzat konputatuko da, bidezkoa bada. Aldi baterako gozamenagatik behin-betiko likidazioa eta alkar-poderosoa edo testamentu egiteko ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse diren likidazioa aldi berean egingo dira.

IX. KUDEAKETA

10. artikulua

1. Subjektu pasiboak aitorpena aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina, eta eredu horrek likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak bilduko ditu. Aitorpen horretan zergari buruzko datuak eta beharrezkoak eta nahi-taetzekoak direnak ez ezik, kuota adieraziko da.

2. Hauexek dira aitorpena aurkezteko eta kuota ordaintzeko epeak, Zergaren sortzapena hasten denetik aurrera:

- a) Inter vivos egintzei buruzko aitorpenak, 30 asteguneko epean.
- b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea urtebetekoa izango da.

3. Aitorpenarekin batera, Zergapeko egintza edo kontratua agerrazteko egindako agiria aurkeztu behar da.

Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiri bidez frogatu behar dira.

4. Udal Administrazioak eskubidea du pertsona interesatuei agindeia egiteko eta interesatuak eskatuz gero luzagarria izango den hogeita hamar eguneko epearen barruan, zergaren likidazioari ekiteko bidezkotzat jo ditzakeen dokumentu guztiak eskatzeko; epe horren barruan egindako agindeiari erantzuten ez dietenek, dagozkien arau-hauste eta tributu-zehapenak izango dituzte, baldin eta adierazi diren agiriak aitorpena egiaztatze-ko eta likidazioa ezartzeko beharrezkoak badira. Adierazi diren agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatze-ko bitarteko hutsak balira, agindeiari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontuan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du



5. Udalak subjektu pasiboarentzako autolikidazio sistema ezarriko du, artikuluko honen 2. atalean aurrikusitako epeen barruan haren emaitzako kuotaren sarrera izango duela.

6. Udalek autolikidazio sistema ezar ez dezatenean, zergaren likidazioen berri emango zaie subjektu pasiboari, oso-osorik, sarrera epea adieraz eta bidezko baliabideen aipamena eginez.

7. 1. atalean xedatu dena gorabehera, ondoren aipatuko direnak ere zerga-egitatea jakinarazi behar diote Udalari, subjektu pasiboari ezarritako epe beretan:

- a) Zerga ordenantza honetako 6. artikuluko a) letran adierazitako balizkoak bizien arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintzagilea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duena.
- b) Arestian aipatu den 6. artikuluko b) letrako balizkoak gertatzen direnean, eskuratzaila edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaiona.

8. Era berean, Notariak egutegiko hiruhilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiraren barruan, egutegiko aurreko hiruhilabetekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri behar izango dute nahitaez, bakoitzak bere Udalari, haiek, dena den, eskuhartzaileen izen-deiturak, nortasun agiri nazionala eta helbidea eta, agintzak bil ditzatenetan, zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna ageriko jar dezaten egintza edo negozio juridikoak bilduko dituztelarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Epe

berberaren barruan ere jakinaren gainean egon edo izenpeak legeztatzeko aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri behar izango dute. Atal honetan aurrikusitakoa Bizkaiko Foru Tributu Arau Orokorrean ezarritako lankidetzako betebeharrak orokorraren kalterik gabe.

9. Udal Administrazioak aitortu ez diren zerga-oinarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 2. atalean aipatzen diren epeen barruan, interesatuei agindeia egingo die aipatutako aitortpena egin dezaten, tributu-urratzeak eta, horrela balitz, dagozkien zehapenak gorabehera.

Udal Administrazioak aurrikusitako agindeiak bideratuta, eta interesatuek dagokien aitortpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea tramitatuko da, berak dituen datuekin, dagokion likidazioa eginez eta, hala balegokio, dagozkion sartze-epeak eta errekurtsioen adierazpena azaldurik, tributu-urratzeak eta, hala balitz, dagozkien zehapenak gorabehera.

X. XEDAPEN GEHIGARRIAK

Xedapen Gehigarria Lehenengoa

Aurreko 7.2 b. artikuluan xedatu denaren ondoretarako, Ondare Eskualdaketa eta Ekintza Juridiko Dokumentatuei buruzko Zerga onetsi zuen Foru Araua indarrean dagoen bitartean arau hauek bete beharko dira:

- a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdiko %2, baina %70 gainditu gabe.
- b) Biziarako gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela iritziko da gozamenaren 20 urte baino gutxiago dituenetan, eta hori gutxituz joango da, hortik gorako urte bakoitzeko %1eko proportzioan, balio osoaren %10eko mugarekin.
- c) Pertsona juridiko baten alde egindako gozamena, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabe egongo balitz, eragin fiskaletarako, ebazpen-baldintzapeko jabetza osoko transmisiozat joko da.

2. Jabetza soileko eskubidearen balioa, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren desberdintasunean konputatuko da. Aldi berean aldi baterako diren biziarako gozamenetan jabetza soila neurtzeko, aurreko lehen zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.



3. Erabilera- eta bizitoki- eskubide errealeen balioa ezartzeko, aldi baterako gozamen edo biziartekoen gozamenaren kasuen arabera, balorazioari dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zireneko ondasunen balioaren %75ari aplikatuko zaizkio

XI. XEDAPEN IRAGANKORRA

Ez dira berrikusiko Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko 182/2021 epaia ematen den egunean gauza epaituaren indarra duen epai bidez edo administrazio-ebazpen irmo bidez behin betiko erabakitako zerga betebeharrak.

Ondorio horietarako bakarrik, honako hauek ere kontsolidatutako egoeratzat hartuko dira: aipatutako epaia ematerakoan aurkeratu ez diren behin-behineko edo behin betiko likidazioak, bai eta data horretan zuzentzeko eskatu ez diren autolikidazioak ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritakoaren arabera.

XII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin, behin betiko onarpena aldizkarian argitaratzen denean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**ERANSKINA / ANEXO
PORTZENTAIEN TAULA / CUADRO DE PORCENTAJES**

Sortzapen aldia (urteak) Periodo de generación (años)	Karga-tasa Gravamen %
Urte 1etik beherakoa / Inferior a 1 año	2,00
1	1,50
2	3,00
3	4,00
4	5,00
5	6,00
6	6,50
7	10,00
8	13,00
9	15,00
10	15,00
11	15,00
12	15,00
13	15,00
14	15,00
15	15,00
16	14,00
17	12,00
18	10,00
19	7,50
20 urte edo gehiago / Igual o superior a 20 años	6,50